



Acido C taldea gazte gipuzkoarrez osaturik dagoen multikonboa da. 2002ko urrian erabaki zuten taldeari itxura ematea Donostian, eta 2003an hasi ziren zuzeneko kontzertuekin. 2004an autoekoizturiko lehen lana argitaratu zuten: "La Ostra Azul" izenburua eman zioten. Garai gazi-goza. Musikaltasunean gorantz eta hasten ari zen Acido C, baina nokieroko galanta jasan zuten beren banatzaile-managerrak iruzur egin zienean. Altxatzea baino ez zitzairen geratzen, ezin zuten etsi horren azkar eta kantauk egitea da erremediorik ederrena.

Acido C taldearen bigarren diskoa 2007ko ekaina eta iraila bitartean grabatu zen Oiartzungo Lezoti estudioan, Iñigo Sound soinu teknikari zutela. Nahasketa eta masterizazioa Jean Phocas teknikoak egin ditu taldearekin batera, Donostiako Elkar estudioan. Tronboan Iban Ginea izan dute eta koro beroak THC taldeko Alicia Arguiñano eta Eva Rada abeslariak egin dituzte.

Acido C taldearen bigarren lanak "Stereopropulsion" izenburua du. Diskoaren sensualitatea nabarmena da eta gainezka egiten du; doinu bakoitzak fereka goxo baten indar psikologikoa du, dantzarako bultzada intimoa, kantuek transportatu egiten zaituzte stereopropulsioraino. Mugimendu elektrifikanteak batzuetan, mantsoak eta hipersensibleak besteetan. Kantuak batzuetan zitzu bizian doaz eta gero erritmo geldoak hartzen dituzte, lasaitasunari tartea eskaintzeko asmoz. Bozgoragailuez beteriko kohete intermusikala. 70eko eta 80ko hamarkadetako musika beltzaren arnasa du diskoak. Disko retroa dela ere esan daiteke; garai horien errebisioa da "Stereopropulsion". Disko house gogotsua, funk zalapartatsua, soul sentiberatsua, dantzarako musika beltza, acid jazz txundigarria, mugimendurako erritmo alaiak, haize atal bikaina, sintetizadoreen ukitu dirdiratsuak programazioekin nahastuta, perkusio eta gitarra biribilak irribarre handiaren bila. Goxotasuna, hurbiltasuna. Acido C, berez koipe garbitzaile eraginkorra.

**1.- Musika aholku gutxi etorriko zitzaizuen Euskal Heriko taldeetatik. Beste nonbait jarriko zenituzten begiradak eta gustuak.** Zer esango dizut, bada, egia da azken hamarkadan Euskal Herriko musikak izan duen bilakaera parametro igualtsuetan mugitu dela, inertzia eskematikoaren indarrak bultzatzen zuelako rockera eta horren inguruetara. Esan daiteke sortu eta aurrera atera diren taldeak egin dutela torluari buelta berri bat eman diotelako euren estiloaren barruan; merezimendu hori eman beharko diegu, bederen. Guk, gure aldetik, antzeko bilakaera izan dugu, sustrai antzekoarekin baina ez berberarekin: 70eko eta 80ko hamarkadetako musika beltzari buruz ari naiz. Oinarri hori kontuan harturik, hasieratik egin nahi izan duguna izan da denok ezagutzen dugun musika-generoa beste mota bateko erritmoekin nahastu, baita soinu garaikideagoekin ere. Era horretan nahastu ditugu funk, soul, house, dance, acid jazz eta beste afro-amerikar jatorriko soinuak, eta horren emaitza edonork erraz antzeman dezakeen soinua da; gainera, badu entzulea berehala harrapatzen duen ukitu freskua. Baina galderari erantzunez, Acido C taldean erabiltzen ditugun osagaiak ez dira erraz aurkitzen gure herrialdean, hala eta guztiz ere zuntz optikoa eta wifi tresnak dituen mundu digitalean bizi garenez nahiz eta elkarrengandik oso urruti egon horrek hurbildu egiten gaitu eta dena eskura daukagu.

**2.- Bideragarriak dira horrenbeste musiko behar dituzten taldeak beren estiloa jorratzeko?** Jakintsu batek behin esan zuen gutxiago gehiago dela. Agian horrela da, oraindik, ordea, ez dugu esaera zahar hori bere osotasunean ulertu; baten batek, halaber, esan omen du "gehiago ona da, eta asko hobea da". Dena den, arestian esan dugun bezala, entzulearen gehiengoa musika talde jakin baten eskemara ohitua dago; hots, baxua, gitarra, bateria eta ahotsa. Halabaina esango dut taldekide kopuruak ez duela zertan loturik egon momentoko musika estilo batera edo joerara. Badira hiru lagunez osatutako taldeak bikain jotzen dutenak eta beste batzuk ez horren ongi.. Gu musikari multzo handi bat gara, baina garrantzitsuena ez da taldekide kopurua baizik eta horien gaitasuna elkarlanean aritzeko. Oinarrizkoa eta derrigorrezkoa da. Familia handi baten antza du; berdin dio zenbat kide dituen, oinarrian kale egiten badu, dena bertan behera dator kartekin egindako gaztelua bezala.

**3.- Zuen izenburuak dio "Stereopropulsion". Bultzada baten beharrea al zaudete?** "Stereopropulsion" hitzaren definizioa diskoarekin batera doan liburuxkaren barruan azaltzen da, baina ez dakienarentzat esango dugu adore egoera bat dela. Estudioko bigarren lan honek sentsazio metaketa bat da, zeinari kantuen forma eman diogun eta "Stereopropulsion" hitzarekin batu dugu fenomeno hori guztia. Ez da ezer behar dugula, **soilik bizi nahi dugu hain jende gutxi deskriba dezakeen "beste hori" bizi dugula** eta horrenbeste izen izan ditzakeena, guk, besterik gabe, jarri diogun izena da... "stereopropulsion".

**Xabier Navarro:** bateria eta koroak. **Iñaki Ilzarbe:** gitarra. **Iker Martín:** saxoa eta koroak. **Ixak Oiartzabal:** perkusioa. **Mikel Ramírez:** tronpeta eta koroak. **Mikel Iribarren:** baxua eta programazioa. **Julen Izarra:** saxoa. **Pablo Rodriguez:** ahotsa. **Juanjo Cabeza:** soinu teknikaria.



Ritxi aizpuru  
2007ko Abenduak 4a

